

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Akats zuzenketa

2021eko abenduaren 1eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (230 zb.), Azpeitiko Udalak publikatutako kirol-ekintzen teknika-riaren postua betetzeko deialdian eta oinarrietan akats bat egiaztatu denez, zuzenketa hauek egiten da:

Lan-poltsari buruzko hamahirugarren atala zuzenketa egin ondoren, honela jasotzen da:

Oposizioaldiaren proba guztiak gainditu dituzten hautagaiekin eta izendatuak izan ez direnekin, lan-poltsa bat sortuko da. Kirol-ekintzen teknikariaren plaza aldebaterako beharrei erantzuteko edo profil horretako kontratazio beharrei erantzuteko.

Legeak desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke herri-administrazioei erreserbatutako kuota iritsi arte, edo negoziazioan ezarritakora iritsi arte, hori handiagoa bada, desgaitasuna duten langileen txanda mugatutik datozen zerrendak badaude, 3 kontratu edo izendapenetatik 1 langile horien alde egingo da. Zerrenda horiek lehentasun-ordenaren arabera erabili beharreko zerrenden osagarri gisa erabiliko dira. Muga berarekin, desgaitasuna duten langileen txanda mugatuko zerrendarik ez badago, langile horien aldeko kontratu edo izendapen kopuru bera egiten saiatuko da, Administrazioako organo eskudunak langile horien izaera aitortuta izan beharko du, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izan beharko du, eta dagokion zerrendan sartuta egon beharko du, ezarritako lehentasun-ordenaren arabera.

Azpeitiko Udalak EAEko administrazio edo erakunde publikoen eskura jarri ahal izango du, hautaketa prozesutik sortutako lan-poltsa.

Azpeitia, 2021eko abenduaren 17a.—Nagore Alkorta Elorza, (8218) alkatea.

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Corrección de errores

Detectados un error en el anuncio del BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 230 de 1 de diciembre de 2021, referente a la publicación de la convocatoria y las bases para la selección de un/a técnico/a de actividades deportivas para el Ayuntamiento de Azpeitia, se realizan la siguiente subsanación:

La base décimo tercera relativa a creación de la bolsa de trabajo, queda redactada de la siguiente manera:

Con las personas aspirantes que hayan superado todas pruebas de la fase de oposición, y no haya sido nombrado, se creará una bolsa de trabajo para atender las necesidades temporales de la plaza de técnico/a de actividades deportivas o para realizar contrataciones de este perfil.

Hasta que se alcance la cuota reservada por Ley a las Administraciones Públicas par a la contratación de personas con discapacidad o la establecida en negociación si ésta fuera superior, en caso de que existan listas provenientes del turno restringido par el personal con discapacidad, 1 de 3 contratos o nombramientos se efectuará a favor de este personal. Estas listas serán utilizadas con carácter complementario a las listas que corresponda utilizar de acuerdo al orden de prelación. Con el mismo límite, en caso de no existir listas provenientes del turno restringido par personal con discapacidad, se procurará realizar igual número de contratos o nombramientos a favor de este personal que deberá tener reconocida la condición de tal, con discapacidad de grado igual o superior al 33 % por el órgano competente de la Administración y estar integrada en la lista que corresponda utilizar de acuerdo al orden de prelación establecido.

El Ayuntamiento de Azpeitia podrá poner a disposición de las administraciones o instituciones públicas de la CAPV que así lo soliciten la bolsa de trabajo creada mediante el presente proceso selectivo.

Azpeitia, a 17 de diciembre de 2021.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (8218)